

Tetris

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Lehengusuak emanda iritsi zen gure etxera, lehenengo makinita. Grisa eta luzanga zen, erdian bihurgune txiki batekin, eta gorria zuen botoirik garrantzitsuena. Hura sakatu eta musika errepikakor batek hartzen zuen inguru guztia, ozen, jokalaria jolasean huts egiten zuen arte. Zenbat eta hobeto jokatu, orduan eta azkarragoa zen doinua –tin-tiriririn-tiriririn-tiriririrara-tintin-tintin-tintin-tintin...–, orduan eta larriago sentitzen zen jokalaria.

Errepikakorra eta estua zen Tetrisean puntuak irabazteko eta mailaz igotzeko dinamika, baina, nahikoa zen komunean edo sofan bizpahiru eserialdi makinitaren aurrean egitea, behatzen

eta botoien arteko sinbiosi perfektura iristeko. Pentsa, Z eta T formadun pieza bihurriak maitatzera ere iritsi ginen, azkenerako.

Auskalo zenbat urte joan diren gailu hark, pilen kontaktuarekin erotuta, gauetan bakarrik piztu eta doinu sarkor harekin esnatzen gintuenetik. Bada, berriki aurkitu du gure amak, bazkalondo batean bilobarentzat jostailu zaharrak ateratzen ari zela. Tetrisa, semea, amona.

Sinbiosi perfektua, berriro. Bizitza Munduko Tetris Txapelketa bilakatu dela iruditzen baitzaigu, kontziliazio deitu nahi geniokeen baina deitu ezin diogun bideojoko honetan. Eta, tira, pantailaz pasatzea errespetuzko zaintzarekin uz-

tartu nahi duzunean, piezak gero eta azkarrago erortzen hasten dira pantailaren goialdetik, haiek elkarren artean uztartzea ia ezinezko bilakatuta, musikaren etenik gabe. Baina, lasai: partidako puntu horretan, makinitak beti oparitzen dio jokalaria arnasa ematen duen piezaren bat, gutxienez lerro bat edo bi desagerraraztea ahalbidetuz.

Pieza horiek dira amona-aitonak; gure haurrenak, zehazki, eta beste askorenak, oro har. Bizimodu honen erritmoari, piezei eta musikari guk eusten diegula uste dugun arren, ezingo baikenuke Tetris partida jokatzen hasi ere egin, haiek jostailu zaharren artetik makinitak aterako ez balituzte. Eskerrik asko, partida guztiengatik. •

Janariarekin ez da jolastu behar

Miren AZKARATE
BADIOLA

Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeak bertako gobernuaren kudeaketaren esku daudenetik ezin uka aspektu batzuetan, behintzat, egoera hobetu dela. Pentsa, bertso eskolak dauzkate!

Urte batzuk atzera hori eta beste kontu batzuk pentsaezinak ziren, eta esan beharra dago horrelako hobekuntzek bizi baldintzak hobetzea dakartela. Aldaketa txikiak sistemarentzat, baina onura handiak bertan “bizi” direnentzat.

Hala ere, badira hobetu beharreko zenbait kontu gehiago, bizi baldintzetan izugarri eragiten dutenak, eta presoen-tzat, bereziki haien osasunarentzat, oso garrantzitsuak direnak: elikadura, kasu. Elikadura, edozeinentzat, bizi den lekuan bizi dela ere, funtsezko zutabea da. Eusko Jaurlaritzak milioi erdi euro eman dizkio aurren, eta urteak atzera eginda hiru milioi euro guztira, janaria egoera txarrean eskaintzeagatik zigortua dagoen enpresa bati. Agintarientzat ez du arazorik suposatzen –nahiz eta zi-

gor horien jakitun izan–, haiei esleitu baitiete Zaballako janari hornidura, besteak beste.

Jakin badakit murruek beste aldean gertatzen denak inoiz ez duela inporta izan erabaki horiek hartzen dituzten eta egunero gure kontu ederki bazkaltzen duten horientzat. Espetxean egotea zigor nahikoa izango ez balitz bezala, janari kontuekin ez zigortzea oinarritzkoa dela iruditzen zait. Bost izarretako hotel baten pare ez, baina usteldu gabeko produktuak jateko aukera, bederen? •